

Euskal presoak Mobilizazioak

Olentzero Algecirasen izan da bigarrenkoz, bertako euskal presoak kaleratzeko asmoz

Protestan parte hartu zuten zazpi lagun atxilotu, eta gero askatu egin zituzten

Erredakzioa / Donostia

Eguberriak direla eta, Olentzerok aurten ere bisitaldia egin nahi izan du Algecirasako kartzelara. Iaz bezala, presoak handik atera eta Euskal Herrira ekartzea zuen helburu, baina aurten helburua lortzeko espetxeko pareta apurtzeko eta leihoetako barroteak hausteko tresnak eraman zituen. Ondorioz, zazpi lagun atxilotu zituzten, baina ilunabarrerako aske geratu ziren.

PRESOEKIN ELKARTASUN KIDEEK presoan aldeko ekintza egin zuten atzo Algeciraseko kartzelan. Ohi bezala ekintza irudimentsua egin zuten, atzokoan garaia lotuta, Olentzero protagonista zuela. Olentzero joan den urteko Gabonetan ere joan zen Algecirasera bertako euskal presoak Euskal Herrira ekarri asmoz. Orduan, dokumentaziorik ez zuela eta atxilotu egin zuten, eta atzo ere antzera gertatu zen. Atzo, ordea, zazpi lagun atxilotu zituzten orotara.

Olentzerok urtebeteren buruan euskal herritar askoren «atsekabe gutunak» jaso dituela azaldu zuen presoan egoerak konponbiderik ez



JON URBE

Presoekin Elkartasun Kideak taldekoak Algeciraseko kartzelan, bat pareta joz eta bestea barroteak mozten.

duelako izan. Horregatik itzultzea erabaki zuela azaldu zuen. Baina oraingoan laguntzaile gehiagorekin joan zen. Halaber iaz, egurrezko pikotxa bat eraman zuten, baina atzo, jada, espetxeko horma eta leihoetako barroteak desegiteko tresna egokiak eraman zituzten, baita egiten saiatu ere. Hainbat lagun kartzelaren aurrean kateatu ziren presoan aldeko pankartekin eta bi lagun, Olentzero tartean, espetxeko leihoe-

tara igo ziren. Bat borra batekin hormari joka hasi zen, eta besteak burdinezko leihoko zenbait barrote apurtu zituen rotaflexarekin. Han izan ziren Poliziak atxilotu arte.

Furgoneta kurpilak zulatuta

Arratsaldeko azken orduan askatu zituzten atxilotutako zazpi lagunak. Baldintzapeko askatasunean utzi zituzten hilero, 1ean eta 15ean epaite-

giak aurkezteko aginduarekin. Desordena publikoak eta kalteak eragitea egozten diete Olentzero eta bere kideei.

Algecirasera joateko erabili zuten furgoneta batek bi kurpila zulatuta zituela ikusi zuten aske geratu ostean.

Presoak hurbildu ditzan galdegin dio Destradek Elisabeth Guigouri

Erredakzioa / Baiona

HIRIBURUKO kontseilari nagusi Jean Pierre Destradek «euskal presoak beren familia eta jatorriko eskualdetik hurbil» ditzan galdegin dio Elisabeth Guigou Frantziako Justizia Ministroari gutun bidez. «Hautetsi gisa egiten dudana eskaera da, giza arrazoinengatik. Zentzu horretan bat egiten dut Tourseko kongresuan gaztedi sozialistak gai honi buruz errandakoarekin» ohartarazi du Destradek.

«Ezker askotariko eta progresistaren betebeharrak da, Charles Pasquak 1986 garren urtean ezarritako presondegi erregimena errotik aldatzea. Eliseoan François Mitterranden kontseilari tekniko gisa egon zinen denboran giza eskubideekiko lotura oso azkarrak sortuko zitzaizkizula pentsatu dut. Horregatik konfidantza oso dut zuregan, aldaketa lehen baita lehen gauza dadin» ohartarazi dio Guigouri, eguberriak tolerantzia eta bake mezuaren eramale izan ohi direla oiritarazirik.

Eibarko alkateari Udalak Zarraberi buruz erabakitakoa defenditzeko eskatu diote

Mikel Zarrabe presoaren inguruan irailean onartu zuten mozioko erabakiak defenditzeko eskatu diote EAJ, EA eta EHk Eibarko alkateari. Mozioan eskatzen zuten Zarrabe Euskal Herrira ekartzeko eta zinegotzi kargua betetzeko oztoporik ez jartzeko. Udaleko ordezkaria bat Soto del Realera joatea ere erabaki zuten. «Bisita egin da, baina Espetxe Erakundeek bisita ofizial horri bisita arrunt baten tratua eman diote». Horregatik egin diote alkateari eskaera hori.

AB eta UDF, gose grebalariekin

ABko idazkaritzak eta UDF alderdiko Beñat Gimenez presoan eskubideen alde Baionako San Andres plazan gose greban dauden kideen bisitatzen izan ziren atzo. ABko Panpi Dirassar, Xabi Larralde, Peio Claverie, Geronimo Prieto eta Solange Mariluzek «erabateko sustengua» adierazi zieten. Gimenezek, berriz, presoan Euskal Herriratzea «giza

arrazoiengatik» galdegin zuela esan zuen. Eskaera alderdiko bertze kideei helaraziko ziela zehaztu zuen.

Portugaleten presoan aldeko baraualdia egiten ari dira, igandera arte

Mikel Quintela Portugaleteko (Bizkaia) EHko zinegotzia eta zinegotzi ohi bat baraualdian dira atzotik igandera arte. Udaletxeko batzorde gelan ari dira gose greba egiten. Ekimen horretaz gain, kontzentrazioak egingo dira Portugaleten, gaur eguerdian, bihar arratsaldeko 13:30etan eta 20:00etan, eta igandean 13:00etan, gose grebaren amaierarekin batera.

Onditzen Euskal Herriratzea bultzatzeko eskatu dio LABek Donostiako alkateari

Donostiako Udaleko LABeko sailak Odon Elorza alkateari eskatu dio Maitane Sagastume preso eta Onditz haren semea Euskal Herriratze ahaleginak egin ditzan. Igandean egingo den kalejira babesteko ere eskatu diote. Ekimenak atxikimendu ugari jaso ditu.

...hator hator neska mutil etxera!



**kontzertu
jaialdia**

**abenduak 25 larunbata
berriozarko pilotalekuan
gaueko 9etatik aurrera**

**Ateen irekiera
8:30etan**

**su ta gar
mareakashbad
joxe ripiau
drindots**



**aurretik: 1.300 pzta.
bertan: 1.600 pzta.**



**sarrerak salgai: herri eta auzo guztietan
irunea: planet rock, kilkir diskak.**